

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO VI. PLANAREN EBALUAZIOA ETA VII. PLANGINTZALDIRAKO ERABILERA PLANA

Elgoibarko Udala

Elgoibarren, 2023ko martxoan

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. LEGE OINARRIA	3
3. EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA.....	4
3.1 OINARRI METODOLOGIKOAK	4
3.2 IRISMENA: ZER EBALUATU/ZER NEURTU.....	5
3.3 NOLA EBALUATU.....	6
3.4 DATUEN TRATAMENDUA.....	7
4. EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK	8
4.1 ZERBITZU HIZKUNTZA.....	8
4.2 LAN HIZKUNTZA.....	11
4.3 KUDEAKETA.....	13
5. ERAGIN GUNEA ETA ERAGIN EPEA.....	16
6. EBALUAZIOA: EMAITZA KUALITATIBOAK	16
7. ONDORIO NAGUSIAK.....	18
8. KEMEN MARKO BERRIRA EGOKITZEKO EGITEKOAK.....	19
9. 2023-2027rako ERRONKAK ETA ILDO NAGUSIAK	20
10. 2023-2027rako HELBURU ETA NEURRI PROPOSAMENAK	20
11. NORMALIZAZIO EKINTZAK.....	23
12. AZPIEGITURA.....	24

ERANSKINAK:

- I. ERANSKINA. Elgoibarko Udaleko hizkuntza eskakizunak eta administrazio-atalen sailkapena.
- II. ERANSKINA Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak.

I. SARRERA

Euskararen legearen bidez, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean zituzten betebeharrak ezarri ziren. Horiek horrela, 86/1997 Dekretuak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei

I. plangintzaldia (1990-1997)

1990ean, Elgoibarko Udalak **Euskararen erabilera sustatzeko lehen plana** onartu zuen. Helburu nagusia udal langileak euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen: lanpostu bakoitzari zegokion hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data, hala bazegokion, ezarri zitzaion, eta langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko baliabideak jarri ziren. **1995ean**, Euskararen erabilera normaltzeko eta sustatzeko Udal Ordenantza onartu zuen Elgoibarko Udalak.

II. plangintzaldian (1998-2002), langileak euskalduntzeaz eta alfabetatzeaz gain, euskararen erabilera planaren presentzia barneratzeko apustua egin zen. Lehentasunezko sailak ere izendatu ziren eta sail ezberdinetako lanjardunen bilketa egin zen.

III. plangintzaldia (2003-2007), langileak euskalduntzen eta trebatzen jarraitzeko neurriak ahaztu gabe, oinarri teoriko sendoak jarri ziren euskararen erabilerak gora egin zezan udalean: administrazio-atalak eta lehentasunak definitu ziren. Plan honen helburua zen euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan zedila udalean.

IV. plangintzaldiak (2008-2012) aldaketa handia ekarri zuen: planifikazio zehatz bat jarri zen martxan, euskara ere ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko, bi hizkuntzen erabilera bermatuz. Plangintzaldi hartan finkatu ziren azterketa komunikatiboak, berariazko hizkuntza-trebakuntza saioak, kudeaketarako antolakuntza-egiturak... hori guztia bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko bermatzeari begira. Datuek erakutsi zuten, Udalak bermatzen zituen herritarrekiko euskarazko komunikazioak; era berean, prestatuta zegoen, gehiago edo gutxiago, euskaraz lan egiteko; hala eta guztiz ere, oraindik ere gaztelania zen sortze-hizkuntza sail batzuetan eta horien tzulpenekiko menpekotasuna handia zen.

V. plangintzaldiak (2013-2017) argi eta garbi ezarri zuen helmuga: euskara administrazioetako jarduneko ohiko lan-hizkuntza izatea, eta euskara lehentasunez erabiltzea. Erabilera zen erronka nagusia. 2016ko uztailan, udalean Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak onartu ziren, eta 2016ko abenduan, Urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu zuen Elgoibarko Udalak. Batetik, Euskara plana eta hizkuntza irizpideak errotua zedela udalean, eta bestetik, langileen hizkuntza gaitasun altua zela, eta euskara planarekiko atxikimendua bai langileen aldetik baita udal ordezkarien aldetik ere handia zela ondorioztatu zuten ebaluatzaileek. Euskararen Kalitate Ziurtagiria da Bikain, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen dituen.

VI. plangintzaldia (2018-2022) euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa berriaren plangintzaldia izan da. Euskararen kudeaketa Elgoibarko Udalaren kudeaketa orokorraren barruan txertatu da. Lan nagusia izan da Elgoibarko Udalaren helburu nagusiek bat egitea euskararen erabileraren normalizazioarako hizkuntza irizpideekin, plana eraginkorra izateko.

Elgoibarko Udalak 2018-2022 Plangintzaldiko Erabilera Planaren ebaluazioari ekin zion 2022ko udazkenean eta helburu horri erantzutera dator txosten honetan jasotakoa. Aurreko Plangintzaldian erabilitako EME markoa, Erreferentzia Marko Estandarra, hartu dugu oinarri ebaluazioa egiteko eta bertan zehaztutako adierazleen arabera azterketa jaso dugu. Dokumentu honetan jaso ditugu adierazle panel orokorra, EMEn arabera eta baita neurri zuzentzaileak ere Erabilera Plan berriari begira.

Egindako lana Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetza (HPS) VII. Plangintzaldira begira egiten ari den aldaketen testuinguruan kokatu behar dugu eta egoerak ezarritako mugekin lan egin dugula aipatu beharra daukagu, marko berririk ezarri gabe egon delako lan hau egin den garaian. Hala ere, dokumentu honetan, 8.atalean, jaso ditugu, zuzen ala oker, HPSk egin nahi dituen berrikuntzetara egokitzeko urratsak.

Beraz, nahi genuke 2022an zehar Elgoibarko Udaleko Erabilera Plana ebaluatzeko egindako aurrelanak Plan berria zehazteko oinarri baliagarria izatea.

Amaitzeko, ebaluazio prozesuan parte hartu duten guztien lana aitortu eta eskertu nahi dugu.

2. LEGE OINARRIA

Tokiko Administrazioa izanik honako legeak hartuko ditugu kontuan Erabilera Plana gauzatzeko orduan, eta, garrantzia berezia izango dute azken urteetan onartutakoak, udalei berebiziko ekarpena egiten baitaie haietan:

- **Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. Artikulua**, Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
- **Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea**, Euskararen erabilera arauzkotzekoa (Euskararen Legea): herritar ororen eskubidea da erakunde publikoekiko harremanetan, idatziz nahiz ahoz, herritarrak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean, euskaraz edo gaztelaniaz, artatua izatea; eta erakunde publikoen obligazioa da eskubide hori egiazki errespetatzeko beharrezko diren neurriak hartzea, eskubide hori eraginkorra eta benetakoa izan dadin.
- **Uztailaren 6ko 6/1989 Legea**, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (aurrerantzean, Funtzio Publikoaren Legea), izan zen herri-administrazioen lanpostu-zerrendetan nahitaez jaso beharrekoen artean lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna eta, dagokionean, derrigortasun-data, sartu behar direla ezarri zuena. Hala abiatu zen 1990ean administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko I. Plangintzaldia (1990-1995).
- **Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua**, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, izan zen hurrengo lege-mugarri nagusia Dekretu honetan ezartzen dira Plangintzaldiak 5 urtekoak izango direla eta erakundeek plana aurkezteko duten derrigortasuna ezartzen duena, derrigortasun-indizea eta helburu mailakatuak (herri administrazio bakoitzaren errealitatearen arabeko helburuen proposamena egiten d) bezalako kontzeptuak ekarriko dituen.
- **Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta**: 10. artikuluan administrazioari dagozkion konpromisoak zehazten ditu eta, 7.2 artikuluan adierazten denez, euskara erabiltzen dutenen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna bultzatzea da euskararen aldeko neurri bereziak hartzearen helburua eta justifikazioa, eta horretxegatik ezin dira hartu hizkuntza nagusietako hiztunen aurkako diskriminaziotzat.
- **Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa**. Lege honek bere aplikazio eremurako garatzen eta zehazten ditu Euskararen Legeak herritarrei erakunde publikoekiko harremanetan aitortutako hizkuntza eskubideak. Euskara lan hizkuntza izateari balio juridiko osoa aitortzen zaio eta lehendabiziko aldiz hitz egiten da kargu politikoen hizkuntza gaitasunari buruz, eta hautetsien hizkuntza gaitasuna ulermen maila lortu arte sustatuko duela Udalak jasotzen da.
- **179/2019 Dekretua azaroaren 19koa**, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen garapena da eta zehatz definitzen ditu Udalak bere jardunean jarraitu beharreko irizpideak.

Hauetaz gain, Elgoibarko Udalak euskara sustatzeko zehaztuta dituen ordenantza, irizpide edo araudiak ere izango dira Erabilera Planaren lege-oinarria.

3. EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA

3.1 OINARRI METODOLOGIKOAK

Txosten honetan jasotzen den ebaluazioa Eusko Jaurlaritzak aurreko Plangintzaldian proposatutako metodologia eta irizpideak jarraituz gauzatu da eta oinarri-oinarrrian Erreferentzia Marko Estandarra (EME) dago.

EME, Erreferentzia Marko Estandarra, lanerako markoa da, ez-arauemailea. Grafikoki, laguntza-koadro bat da erakundean hizkuntzaren presentzia eta erabilera zertan gauzatu ohi den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan, zerbitzu-hizkuntzari, lan-hizkuntza eta kudeaketari dagokienez.

Bi dira ardatz nagusiak: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza, baina kudeaketa arloa bistaratu dugu ebaluazio honetan hurrengo Plangintzaldian arlo estrategikoa izango delako.

EME ERREFERENTZIA MARKO ESTANDARRA

ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA		
1. mailako elementuak	2. mailako elementuak	3. mailako elementuak
1. Erakundearen irudia	1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak.	Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak.
	1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak.	Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta papeleria. Jendaurreko ekitaldiak. Herritarrari begira antolatutako ikastaro eta jarduerak.
	1.3. Ingurune digitala.	Webgune eta sare sozialen erabilera.
2. Herritarrekiko harremanak	2.2. Herritarrekiko idatzizko harremanetan zerbitzua edo/eta produktua ematea.	Herritarrekiko idatzizko harremanak. Euskarazko eskaera idatziari euskaraz emandako erantzunak.
	2.3 Herritarrekiko ahozko harremanetan zerbitzua edo/eta produktua euskaraz ematea.	Harreraguneko telefono bidezko harrera, aurrez aurrekoa eta automatizatua. Telefonoz, on-line eta aurrez aurre egindako ahozko harremanak. Ahoz euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak.

ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA		
1. mailako elementuak	2. mailako elementuak	3. mailako elementuak
3. Barne komunikazioa eta lan-tresnak	3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia.	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia.
	3.2. Idatzizko barne komunikazio bertikala eta horizontala.	Informaziorako/komunikaziorako tresnak. Lan-bileretako idatziak. Erakundeko barne harremanetarako idatziak.
	3.3. Ahozko barne komunikazio bertikala eta horizontala.	Erakunde barruko lan-bileretako ahozkoak. Erakunde barruko telefonozko harremanak. Erakunde barruko aurrez aurreko harremanak.

	3.4. Baliabide informatikoak.	Euskarazko bertzioak Euskarazko bertzioen instalazioa
4. Langileen kudeaketa	4.1 Langileen kudeaketa.	Langileen kudeaketa.
	4.2. Laneko prestakuntza.	Laneko prestakuntza ahoz eta idatziz. Ikastaroen kudeaketa.
5. Kanpo-harremanak	5.1 Administrazioa.	Administrazioekiko idatzizko harremanak. Administrazioekiko ahozko harremanak.
	5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.	Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak.
	5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak...	Beste entitateekiko idatzizko harremanak. Beste entitateekiko ahozko harremanak.
6. Kudeaketa-sistema	6.1. Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea.	Kudeaketa planaren jarraipena Zuzendaritzak egitea.
		Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila.
		Euskara sortze-hizkuntza.
		Dokumentuen estandarizazioa.
	6.2. Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanetan eta zerbitzuen garapenean integratzea.	HOEI edo Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen betetze-maila.
	6.3. Hizkuntzen kudeaketa pertsonen kudeaketan integratzea.	Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza-eskakizunak.
Erakundeko ordezkarien hizkuntza-gaitasuna.		
Langileen eta sailtako arduradunen balorazioa erabilera planarekiko.		
Langileen eta erakunde ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan.		

Hirugarren mailako elementuen balioak lortzea izan da ebaluazio honen helburua, balio horiek izango baitira 1. eta 2. elementuen emaitzak kalkulatzeko oinarri. Helburua lortu dugulakoan gaude, metodo eta teknika ezberdinak erabili baititugu udalean datuak jasotzeko.

3.2 IRISMENA: ZER EBALUATU/ZER NEURTU

Elgoibarko Udaleko euskararen egoera ezagutzeko, ezinbestekoa da erakunde osoaren egoera aztertzea; horregatik, Udala osatzen duten hamabost sailetan egin dugu datu-bilketa.

Datu-bilketa egiteko, sailtako arduradunekin egindako elkarrizketetan oinarritu gara batetik, sailari buruzko informazioa jaso ahal izateko eta sail horretan egiten den lana ulertzeko: nola dagoen osatuta, zein eginkizun dituzten, zein harreman, zein helburu dituen sailak, zer aurreikusten duten... Euskararen erabileraren inguruan ere galdetu dugu ahozko joerak aztertzeko, euskara hutsean egin daitekeena identifikatzeko...Erabilera planaren inguruan ere jardun dugu elkarrizketetan, jakiteko zenbateraino ezagutzen diren planaren helburuak udalean eta ebaluazioaren zergatia kokatzeko baita ere.

Horiez guztiez gain, sailez sail, euskara arloko beharrak jaso ditugu, behaketa lana egin dugu eta aurrera begirako erronkak edo konpromisoak zehaztu ditugu.

Eta bukatzeko, EME ardatzean oinarritutako adierazleen jarraipena egin dugu langileei pasatutako galdetegiaren bidez. Udaleko lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntzari buruzko galderak egin ditugu, eta informazio esanguratsua jaso dugu.

3.3 NOLA EBALUATU

INFORMAZIOA BATZEKO ITURRIAK ETA TEKNIKAK

Erakundearen informazioa eskuratzeko, iturri hauek erabili ditugu:

Elkarrizketak	Sailetako arduradunekin bakarkako elkarrizketak egin ditugu egoeraren azterketa egiteko, erabilera, beharrak, aurrera begirakoa... Munigex dokumentu eta espedienteen kudeaketarako aplikazioa kudeatzen duen arduradunarekin ere elkarrizketak izan ditugu.
Behaketa zuzena	Datu batzuk behaketa bidez jaso ditugu, beste batzuk Munigex izeneko kudeaketarako aplikazioan jasotako informazioaren bidez, baita Udaleko sarrera-irteera erregistroetan jasotako bidez ere.
Galdetegiak	EME Erreferentzia Marko Estandarreko datu nagusiak jasotzera begira diseinatutako galdetegia bidali diegu langileei.

Laginketa: zeini eta zelan galdetu

Neurtu nahi izan ditugun adierazleak goian aipatutako EME laguntza taulan ezartzen badira ere, informazioa modu egokian lortzeko garrantzia eman diogu galdetu beharrekoa langileek ondo eta erraz ulertzeko modukoa izateari, horrexegatik langileek erantzundako galdetegia izan da datuak lortzeko iturrietako bat, eta ondo zaindu dugu galderak planteatzeko modua eta terminologia egokia erabiltzea, beraz.

Goian adierazi dugun bezala, aztergai izan dugun unibertsoa erakunde osoa da.

Galdetegia betetzeko orduan langile guztiengana jotzea erabaki dugu eta halaxe egin dugu, bulegoetako langile guztiei bidali diegu galdetegia online modu errazean erantzuteko moduan. Salbuespenak izan dira, adibidez, eskulana xede duten langileen kasuan, Lantaldeko arduradunak bete du galdetegia. Udaltzaingoan ere, udaltzain asko berriak dira eta ez dugu uste egokiak direnik 2018-2022 planari buruzko galderak erantzuteko, beraz, sail horretako administrarietara eta arduradunetara bete dute galdetegia. Gainera, bi sail horietan zaila egin zaigu erantzunak jasotzea arrazoi ezberdinengatik: lan txanda ezberdinak, bajaran diren langileak... Hortaz, lehen esan bezala, sail horietako ordezkari edo arduradun diren langileek erantzun dute galdetegia.

Galdetegiaren bidez lortutako datuak eta parte-hartzaileen nortasuna modu anonimoan jaso ditugu.

SAILA	GALDETEGIA JASO DUTEN LANGILEAK	INKESTA BETE DUTENAK
Alkatetza	1	1
Idazkaritza	4	4
Berdintasuna	1	1
HAZ	3	3

Kontu hartzailetza	8	7
Hirigintza	5	3
Gizarte Ongizatea	7	5
Kultura	5	4
Zerbitzuak-Lantaldea	2	2
Sustapen ekonomikoa	1	1
Udaltzaingoa	6	2
Udal Kirol Patronatua	3	3
Haur, nerabe eta gazteak	1	1
Euskara	2	2
Barne antolakuntza	3	3
15 udal sail	52	42

Sailtako 10 arduradunekin izan ditugu elkarrizketak: Artekaritza, Pertsonala, Lantaldea, HAZ, Kirol Patronatua, Gizarte Ongizatea, Kultura, Hirigintza, Udaltzaingoa eta Zerbitzuak. Horiez gain, dokumentuen gestiorako erabiltzen den Munigex aplikazioa kudeatzen duen arduradunarekin ere bildu gara birritan.

Langileen Euskara taldearen parte hartzea ere izan dugu neurri batean, jarraipen lana egiten, galdetegiak bete direla ziurtatzen...

Euskara sailaren ardura izan da, behaketa bidez eta Munigex aplikazioaren bidez jaso beharreko datuak eskuratzea, eta bukatu berri den plana ebaluatzeko informazio osagarria biltzea.

Azkenik, prozesu honetan EMUNen aholkularitza eta laguntza izan du Udalak, hainbat lan burutzeko: sailtako arduradunak elkarrizketatu, galdetegia prestatu, eta jasotako informazioaren irakurketa egin ondoren, ebaluazioa eta plan berria prestatu, betiere, Udaleko Euskara Sailarekin eta Langileen Euskara taldearekin elkarlanean.

3.4 DATUEN TRATAMENDUA

Jasotako adierazleek EME laguntza-taulako hirugarren mailako elementuen berri eman digute eta sailez sail atera ditugu.

Bestalde, emaitzak ehunekotan ematen dira kasu guztietan. Azpimarratu behar da ebaluazio honetan, nagusiki, euskararen erabilera izan dela neurtu dena (ez ele bien edo gaztelaniaren erabilera). Horri dagokionez, harrera automatizatuaren erabileraren kasuan, erantzungailuak euskaraz % 100ean daude, nahiz eta gaztelaniaz ere egon. Honen arabera informazio guztia euskaraz ere badagoela esan nahi da.


Azkenik, datuen tratamenduari dagokionez, esan behar da une oro zaindu dugula parte-hartzaileen anonimotasuna, hortaz, lan hau burutzeko erabili dugun informazioaren tratamendua erabat konfidentziala izan da.

4. EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK


4.1 ZERBITZU HIZKUNTZA

Esan bezala, plan honen bidez, Elgoibarko Udaleko sailetan eragin nahi dugu, bertan ari diren udal langileek euskararen erabilera areagotzeko urratsak eman ditzaten.


ERAKUNDEAREN IRUDIA




- Errotulazioa euskaraz hutserako bidea hartu da identifikazio berri gehienetan, ulermena bermatuta izan denean.
- Ikus-entzunezkoen produkzioak gora egin du eta hizkuntza irizpideak betetzen dira.
- Behaketa bidez jasotako datua.




- Irudi korporatiboan elebitasuna nagusi da, euskarari lehentasuna emanda.
- Datuak behaketa bidez lortu dira.




- Paperezko argitalpenetan zertxobait gora egin du euskaraz hutsezko erabilerak aurreko plangintzaldiarekin alderatuta, %20tik %25era.
- Dena den, paperezko argitalpenak gero eta gehiago dira iraunkortasun txikiagokoak, web bidez eta/edo sarean argitaratzen baitira sarri.
- Behaketa bidez jasotako datuak.



- ↳ Oso nabarmen igo da jendaurreko ekitaldietan ahozko euskara hutsezko erabilera urte urte gaztelania hutsezkoa era bat desagertzearaino.
- ↳ Jendaurreko ekitaldietara begira, idatziz aurkeztu dena: kartel, eskuorri, gonbidapen, aurkezpen, ikus-entzunezko... %75 egon da ele bietan eta %25 euskara hutsean.
- ↳ Galdetegi bidez jasotako datuak.




- ↳ Plangintzaldi hasieratik amaierara izandako igoera ez bada adierazgarria ere, Udaletik antolatutako jardueraren erdia euskara hutsean izan da.
- ↳ Euskara hutsezkoak hala egiten direla esan dezakegu, baina ele bietakoetan bertan parte hartzen duten herritarrek baldintzatzen dute hizkuntza, ikastaro edo jarduera emaila euskalduna izan arren. Horrelakoetan, sarri, gaztelania nagusitzen da.
- ↳ Behaketa bidez jasotako datuak.



- ↳ Web guneko atal guztiak ele bietan daude eta sarbide zuzena euskarazko bertsiora izaten da.
- ↳ Udalak herritarrei zuzendutako aplikazioak: lerro berdea, udal tramiteak... ere euskarako aukera eskaintzen dute, norbere esku dago hizkuntza aukeraketa.
- ↳ Behaketa bidez jasotako datua.

Erakundearen irudiari dagokionez, hizkuntza irizpideak ondo betetzen dira eta azkeneko urteetan euskara hutsezko erabilerrara salto txiki bat ematen ari dela dirudi, gaztelania hutsezko erabilerraren kaltetan.


HERRITARREKIKO HARREMANAK



↳ Lehen hitza Udaleko langileek bai telefonoz zein aurrez aurre ia beti euskaraz egiten dute.

↳ Hizkuntza hautua herritarren esku dagoela esan daiteke, eta hor, gero eta gehiago badira ere Udalera euskaraz zuzentzen direnak, badago zer hobetu edo landu.

↳ Galdetegi bidez jasotako datuak.



↳ Udalak hala nahi duten herritarrekin euskara hutsezko harremana izateko urratsak ematen ari da.

↳ Udalera, idatziz, euskaraz zuzentzen diren herritarrak, % 55,29 dira, eta 2017tik hona igoera nabari da.

↳ Kontuan izan behar da udal inprimakiak erabiltzen dituztela sarri herritarrek Udalari eskaeraren bat egiteko, eta horrek asko errazten duela euskarazko harremana.

-Iturria: Munigex aplikazioa

Herritarrekiko harremanean ikusten da herritarrak motibatu beharra dagoela, hala egiten den kasuetan euskararen aldeko hautua egiten baitute sarri.

Udalan herritarrekiko harremanetan dauden lanpostuetako langileek prestakuntza nahikoa dute harreman horiek bai idatziz bai ahoz euskaraz izan daitezzen.

4.2 LAN HIZKUNTZA

BARNE KOMUNIKAZIOAK ETA LAN TRESNAK

Lan tresnak

Munigex da udal tramiteak kudeatzeko erabiltzen den aplikazio informatikoa udalean. Horren oinarri dira idazki-eredu normalizatuak, etengabe egokitzen direnak. Eredu horiek diseinatzen eta zehazten, ondokoek hartu ohi dute parte: Munigex aplikazioaren arduradunak, sailak berak (dagokionak), eta Euskara sailak. Lanerako programa eta aplikazio informatikoak gero eta garrantzi handiagoa dute udal langileen eguneroko lanean, ezinbestekoak dira. Horrenbestez, azken urteetan ahalegin berezia egin da langileak motibatzen baliabide informatiko estandarrak euskaraz erabiltzeko.

Aurrerantzean ere, euskarazko bertsioak sustatuko dira udalean, hala ere, oraindik ere, badira gaztelaniaz dauden programa berezi gutxi batzuk (sailen batean erabiltzen direnak, ez udal osoan) apurka-apurka euskaraz jartzea. Gaur egun, udalean erabiltzen diren aplikazioen %75 euskaraz ere erabil daitezke, eta langileen %65ek euskarazko bertsioa erabiltzen du. Hori da galdetegi bidez jasotako datua, beraz, bada zer hobetu.


Aurrera begira ere, oro har, euskarazko bertsioak izango dira besterik adierazi ezean zabalduko direnak, eta horiek erabiltzeko formazio beharra baldin badago, eskainiko zaie langileei. Ez da-eta nahikoa programak euskaraz jartze hutsa, langileak ohitu egin behar dira programa horiek euskaraz erabiltzera.

Barne komunikazioa

Langileen ahozko erabilera, lan bileretakoa eta ordezkari politikoekiko harremanak euskaraz izateko egoera ezin hobea dago momentu honetan Elgoibarko Udalean, izan ere ordezkari politiko guztiak (17) gai dira euskaraz ulertzeko. Gainera, hitz egiteko gai diren ia denak euskaldun alfabetatuak dira. Horrek izugarri areagotzen du euskararen erabilera bileretan eta batzordeetan.


2017an, berariaz, ahozko erabileraren bi neurketa egin ziren, bata aitortua, eta bestea, Langileen Euskara taldeko kideek bideratu zutena EMUNek erakutsitako metodologia jarraituz. Egindako neurketetan, langileen arteko euskara erabilera %65 ingurukoa izan zen eta lan-bileretan eta ordezkari politikoekiko harremanetan euskararen erabilera %75 ingurukoa izan zen.

Gaur egun esan genezake langileen lan-bileretan eta udal ordezkariekin egiten diren Koordinazio bilera eta batzordeetan euskararen erabilera nagusitu dela.



Langileen arteko komunikazioetan ere bilakaera nabari da, euskara hutsez gehiago egiten baita, urteetako hizkuntza eskakizunak gainditu izanaren eta trebakuntza saioen ondorioz.

-Iturria: Munigex aplikazioa



-Iturria: Munigex aplikazioa

- Osoratu datu garrantzitsua da bileretako agiri eta dokumentazioan euskara hutsa erabiltzeko eman den jautzia, izan ere, euskara hutsean egin ez direnak ele bietan egin dira, gaztelania hutsezko aurkezpen eta bileretako dokumentazioa ia desagertuz. Salbuespenak salbuespen, adibidez, kanpotik datozen agiriak, txosten konplexuak...

LANGILEEN KUDEAKETA


Baimenak, oporrak eta bestelako eskaerak egiteko Berba aplikazioa erabiltzen dute langileek, eta euskarazko bertsioan. Gaztelaniaz erabiltzeko aukera ere bada, baina defektuz euskarazko bertsioa jartzen da langileen ordenagailuetan.

Nominak ere modu informatikoan egiten dira eta ele bietan, baina nominarekin batera langileari bidaltzen zaion mezua euskaraz izaten da. Lan kontratuak ele bietan egiten dira.

Langileentzako jakinarazpenak eta informazio interesgarria (egutegiak, prestakuntza plana, arauak...) euskaraz edo ele bietan izaten da.

Langile berriei hizkuntza irizpideen berri emateko harrera-saio bat eskaintzen diegu Euskara sailean.

Laneko prestakuntza




- Udal barruan antolaturiko formazioan bermatzen da euskararen erabilera, salbuespenak salbuespen.
- IVAPeko ikastaroetan, eskaintzak berak baldintzatzen du hizkuntzaren aukeraketa
- Solaskideguneetik hartu ditugu datuak.

Udalan antolatu diren prestakuntza orokorreari dagokienez, gehienak euskaraz izan dira, adibidez, azken bi ikastaroak, “Datuen Babeserako Araudi Orokorra” eta 39/2015 Legeko Administrazio Prozedura” euskaraz izan dira eta 25 langilek parte hartu dute bietan.

Horretaz gain, udal langileek kanpoko erakundeek antolatutako ikastaroetan parte hartzen dute, eta bereziki IVAPek antolaturikoetan. Hizkuntza prestakuntzakoak kontatu gabe, udal langileek IVAPek antolaturiko ikastaroak euskaraz egin dituzte %40an, baina kontuan izan behar da IVAPek gaztelaniaz eskaintzen dituela ikastaro asko.

Horretaz gain, ikasturtero, 4-5 langile aritzen dira euskaltegietan euskarazko hizkuntza eskakizuna ateratzeko prestatzen, eta trebakuntza saioak ere jaso dituzte azken urteetan beharra izan duten langileek. Gaur egun, euskaltegian ari diren langile gehienak euren euskara maila hobetzeko prestatzen ari dira, euren lanpostuari dagokiena baino maila goragoko hizkuntza eskakizuna lortzeko.

KANPO HARREMANAK



Herri erakundeekiko harremanetan euskarazko ahozko harremana igo egin da pixka bat. Idatzizkoan, berriz, Udalak elebitasunaren bidea du hartuta eta %24,45ean euskara hutsezkoa. Sail batzuk (Euskara, Haur eta Gazteria, Berdintasuna, Kultura) euskara hutsezko harremana dute ia beti EAEko administrazioarekin.

Iturria: Idatzizko erabilera Munigex aplikaziotik eta Ahozko erabilera Galdetegi bidez.

Erakunde pribatuekiko harremana

Udala eta hornitzaile edo bestelako enpresa pribatuen arteko hartu emanean ahozkoan euskaraz egiten da erdia baino gehiago, baina idatzizko harremanei dagokienez, oraindik ere gaztelania hutsezko dokumentu eta agiriak jasotzen dira eta Udalak ere sarri elebitasunaren alde egiten du erakunde hauekin. Aipatu beharra dago, Udalak gastuak onartzeko erabiltzen duen aplikazioan teknikari gehienek euskaraz sartzen dutela informazioa, beraz, horrelakoetan, hornitzaileek ere euskaraz jasotzen dute informazio hori.

4.3 KUDEAKETA

SORTZE HIZKUNTZA

Langileek erantzundako galdetegiko emaitzek, hau da, datu aitortuek esaten digute Elgoibarko Udaleko langileek %89,76an sortzen dutela euskaraz. Datu hauek oso adierazgarriak eta onak badira ere, euskaraz sortutako dokumentu gehienak Itzulpen sailera bideratzen dira zuzentzeko, eta gero eta gehiago dira baita ere, gaztelaniatik euskarara egiten diren itzulpenak. Euskaraz lan egiten duten langileek ez dute zertan itzuli gaztelarera kanporako edo jendaurrean jartzekoak diren dokumentu edo txostenak. Horregatik, dokumentu hauek Euskara sailera bideratzen dira, itzultzaileak gaztelarera itzul ditzan.

Txosten teknikoei dagokienean, Munigex aplikazioaren arabera, txosten teknikoek %36,5 euskara hutsean daude, eta %38,1 ele bietan, beraz, badira oraindik ere gaztelaniaz daudenak. Hala ere, gaztelaniazkoetan udal langileek egindakoak diren edo kanpoko norbaitek egindakoak diren aztertu beharko genuke.

Dokumentuen estandarizatzeko lanari dagokionez, berriz, Euskara sailak lan handia egin du azken urteetan idatzien eredu guztiak euskarazko bertsioan eta ele bietako bertsioan jartzeko. Gaur egun dokumentuen %87,2 euskaraz eta ele bietan daude, eta %12,8 euskaratzeko daude edo zaharkituak geratu dira. Zaharkitutakoak alde batera utzi, eta aurrerantzean ere, sortzen diren tramite berrietarako idatzi ereduak prestatuko ditu itzultzaileak bi bertsiotan, euskara hutsean eta ele bietan, udal idatzien %100era iritsi arte.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Udaleko euskararen erabilerarako Hizkuntza irizpideak 2016an onartu ziren eta 2017tik aurrera jarri ziren indarrean.


Elkarrizketetatik ondorioztatu dugunez, udal langileek, orokorrean, ezagutzen dute irizpideetan jasotzen dena, baina zehaztasunetara iritsi gabe. Udalean irizpideak onartu zirenean, udal langile eta ordezkariak banatu genizkien, eta harrezkero, langile berriei ere eman diegu irizpideen berri. Batzordeburuek eta sailtako zinegotzi arduradunek ere jaso dute irizpideen berri, baita, gainerako zinegotzien ordezkariak ere, legealdi hasieran planaren berri eman genienean.

2023an, HPSk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) abian jarriko duen KEMEN marko berrira egokitzeko prozesuan lehenengo pausoa udaletako hizkuntza irizpideak aztertzea, eguneratzea eta berriak proposatzea izango da. Orduan ekingo diogu gurean ere hizkuntza irizpideak aztertzeari eta eguneratzeari, eta onartu ondoren, zabalkundeari.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK, DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$.

Horren baitan, derrigortasun-indizea 2021eko erroldaren arabera aurreko plangintzaldiarekiko mantendu egin dela esan daiteke, euskaldunen kopurua ($\text{euskaldunak} + \text{ia euskaldunak}/2$) ez da eta apenas aldatu: %69,76 (2016ko erroldan % 69,88). Honek esan nahi du ez dela hizkuntza gaitasunari dagokionez aldaketarik izan. Aurreko Plangintzaldian bezala, Elgoibarko Udalari dagokion derrigortasun indizearen gainetik gaude, udalean derrigorrezko perfila duten lanpostuak %84,62 baitira.




↳ Lanpostuen %84,62k ezarrita du derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Salbuespen dira eskulana xede duten lanpostuak, adibidez, Lantaldeko ofizio anitzeko langileak.

↳ Betetze maila altua da, %93,51koa.

Lanpostuen %84,62k ezarrita du hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna, eta betetze maila %93,51koa da, beraz, 2018-22 plangintzaldian 1,51 puntu gora egin du hizkuntza eskakizunen egiaztatze mailak.

Hizkuntza eskakizunen betetze maila altua dago udalean, eta gainera, langile batzuk euren lanpostuari dagokion perfila baino euskara maila altuagoa egiaztatu dute.



→ Langileen euskara mailari dagokionez, 0 edo I. hizkuntza eskakizuna dutenak Lantaldeko langileak dira nagusiki. Azpimagarria da langileen %70,38ak 3. edo 4.hizkuntza eskakizuna egiaztatu duela.

Helburua: Sortzen diren lanpostu berrietan ere derrigortasuna ezartzea, etorkizunean lanpostu guztietan euskara gaitasuna duten langileak izateko. 2023an egonkortuko dira lanpostu asko udalean, eta 2, 3. eta 4.hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan derrigortasuna ezarriko da. I. hizkuntza eskakizuna duten Lantaldeko lanpostuetan ez da derrigorrezkoa izango, eta meritua gisa baloratu ahal izango da euskara.

ORDEZKARI POLITIKOEN HIZKUNTZA GAITASUNA

2018-2022 epealdian, Elgoibarko udalbatza osatu duten 17 udal ordezkariak gai izan dira euskaraz ulertzeko. Gainera, zinegotzien %82 euskaldun alfabetatuak izan dira. Ahozko ulermena izateak asko lagundu du bilerak euskaraz egiterako orduan ez baita oztoporik egon alde horretatik. Dena den, udal batzordeetako aktak ele bietan jasotzen dira, udal ordezkari batek hala eskatu duelako. Gobernu Batzarreko eta Osoko bilkurako aktak jendaurrean jartzekoak direnez, ele bietan egon behar dira.

Aldi bereko itzulpenak ere posible egin du euskararen erabilera Osokoko bilkuretan, beraz, zinegotziek lasai aritu daitezke euskaraz, eta gehienetan, hala aritzen dira.

LANGILEEN PARTE HARTZEA

Langileen parte hartzea ona da Euskara sailetik eskatzen dizkiegun galdetegi, elkarrizketa, kontsulta, parte hartze eta abarri erantzuteko orduan.

Langileen ordezkari osatutako Euskara taldeak ere sinesgarritasuna eta errekonozimendua jaso du egindako lanagatik eta langileen motibazioan eragiteko egindako hainbat ekintzagatik. Talde honen eginkizuna oso garrantzitsua da lotura egiteko gainerako langileekin.

5. ERAGIN GUNEA ETA ERAGIN EPEA

Lantzen ari garen plan berriaren eragin aldia Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesuaren VII. Plangintzaldia amaitzen denera arte luzatuko da

Eragin eremuak Elgoibarko Udala eta bere ardurapeko erakunde autonomiadunak hartzen ditu, bai zerbitzu hizkuntza eskaintzen dutenena zein lan hizkuntza euskara dutenena.

Ondorengoak dira Erabilera Normalizatzeko Planean parte hartuko dutenak:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direnez, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako langile eta zerbitzuek.
- Dagokien derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten enplegatu publikoek ere parte hartu behar dute.
- Derrigortasun-datarik gabeko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzen dituztenek ere parte hartu ahal izango dute planean, baldin eta dagokien euskara-gaitasuna egiaztatu badute, gakoa euskaraz nolabaiteko gaitasuna izatea baita.

6. EBALUAZIOA: EMAITZA KUALITATIBOAK

Langileek betetako galdetegietan esandakoak:

<p>JENDAURREKO EKITALDIAK</p>	<p>ondo</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Euskarari lehentasuna ematea eta euskal hitzunen hizkuntz eskubideak betetzen direla bermatzea. ▫ Euskara ulertzen ez duen norbait badago, xuxurlari moduan aritzeko aukera. 	<p>hobetu beharrekoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Ekitaldiak euskaraz ez dakitenak daudenean, hizkuntzaren kudeaketa. ▫ Jendaurreko ekitaldietan jarraitu beharreko prozedura hobeto aztertzea eta kasu ezberdinetan nola aritu aurrez zehaztea. ▫ Teknologia berrien erabilera aztertzea.
<p>HERRITARREKIKO HARREMANA AHOZ</p>	<p>ondo</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Lehenengo hitza beti, euskaraz egitea. 	<p>hobetu beharrekoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Talde mistoetan euskarari leku gehiago ematea, eta xuxurlarien figurak erabiltzea. Askotan gaztelerara erraz jotzen dugulako.
<p>HERRITARREKIN IDATZIZ</p>	<p>ondo</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Herritarrek idatziak erdaraz aurkezten dituztenean, Udalaren erantzuna ele bietan izatea, horrela euskararen presentzia bermatzeko kasu guztietan. ▫ Herritarren euskarazko idatziei euskara hutsean erantzutea, baina ez da beti horrela izaten. 	<p>hobetu beharrekoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Herritarrek Udalarekin idatzizko harremanak euskaraz izan ditzaketela sustatzeko ekimenen bat abian jartzea. ▫ Hizkuntza ulerterraza erabiltzea. ▫ Euskaraz sartzen diren idatziei erantzuna, beti, euskaraz.

	ondo	hobetu beharrekoa
ADMINISTRAZIOAREKIN IDATZIZ	<ul style="list-style-type: none"> ↪ EAeko administrazioekin euskara hutsezko harremana izatea. baina ez da beti horrela izaten. 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Aukera dagoen guztietan, EAeko administrazioekin euskara hutsezko harremana izatea.

Sailetako arduradunekin izandako elkarrizketetatik ondorioztatutakoak:

	ondo	hobetu beharrekoa
AHOZKO HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Ahozko harreman asko euskaraz izaten dira herritarrekin. 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Ahozkoan euskara gehiago erabiltzea langileen artean. ↪ Gainerako Administrazioekin euskararen erabilera areagotzea (Ertzantza, epaitegiak...) ↪ Udalarekin euskara hutsezko harremana nahi dutenak identifikatu beharra.

	ondo	hobetu beharrekoa
IDATZIZKO HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Inprimaki eta dokumentu asko estandarizatuta. ↪ Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu ona. 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Munigex (tramiteak kudeatzeko aplikazioa) barruan dauden dokumentuak eguneratzea.






	ondo	hobetu beharrekoa
APLIKAZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Fitxatzeko eta baimenatarako aplikazioa (BERBA HR). ↪ Lerro berdea aplikazioa. ↪ Munigex aplikazioa. ↪ Sareko aplikazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Euskaraz nabigatzea, aplikazioak euskaraz lehenestea beti. ↪ Aplikazioen inbentarioa egitea hizkuntzaren egoera ezagutzeko eta hobetu beharrekoak hobeto identifikatzeko.

	ondo	hobetu beharrekoa
EUSKARA SAILARI DAGOZKION GAIK	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Langileen Euskara taldea egotea udalean. 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Planen ezagutza urria: ESEP, erabilera plana...Komunikazioa hobetzea. ↪ Euskara taldearen funtzionamendua sistematizatzea: egitekoak zehaztu, taldearen lana ezagutzera eman...

	ondo	hobetu beharrekoa
EUSKARAREN EZAGUTZA	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Euskara ikasteko edo lantzeko laguntzak. ↪ Itzultzaile neuronalaren inguruko formazioa jasotzea. ↪ Euskaraz trebatzeko on line pilulak zabaltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Badakigu euskararen erabilera administrazioan eragin behar dela, baina ze arau, lege... dago horren atzetik? Ze plan daude? ↪ Trebakuntza espezifikoa sustatzea (txosten teknikoak lantzeko, arauen erreposoa egiteko, aktak idazteko...).

7. ONDORIO NAGUSIAK

- Elgoibarko Udaleko langileen euskararen ezagutza eta erabilera maila altua bada ere, herritarrengan eragin beharra dago Udalarekin euskara hutsean aritzera anima daitezen. Zenbat eta eskaera gehiago jaso euskaraz, orduan eta gehiago erabiliko dute udal langileek euskara eguneroko jardunean.
- Udal langileek, oraindik ere, Itzulpen zerbitzura jotzen dute eurek sortutako testuetan euskarazko zuzenketak egiteko, testu bereziak itzultzeko edota euskaratik gaztelaniara itzultzeko ere. Hala ere, itzultzaile neuronalak eta antzeko aplikazioek asko erraztu dute azken urteetan itzulpen lana eta aplikazio horiek erabiltzeko gomendioa luzatu zaie langileei baina batzuek ez dute erabiltzen apenas. Etorkizunera begira, komenigarri ikusten da formazioa eskaintzea langileei aldi bereko itzulpenak egiteko aplikazioak erabiltzen ikasteko, eta modu horretan, euskaraz sortzeko.
- Udal tramiteetarako erabiltzen den Munigex aplikazioak herritarren hizkuntza nahia jasotzeko aukera eskaintzen du, baina euskara aukeratzen dutenen errolda osatzeko, ezinbestekoa da erroldatzera edota tramite bat egitera HAZera hurbiltzen diren guztiei galdetzea aurrerantzean ze hizkuntza nahiago duten Udalarekin aritzeko. Egiteko hori oso baliagarri izan daiteke udalean euskara hutsezko jarduna areagotzeko.
- Udaleko langileek euskaraz lan egin behar dutela jakin arren ez dakite zehatz mehatz nondik datorren, zergatik... eskakizun hori. Euskara Saisetik ahalegintzen gara Udaleko erabilera planaren berri ematen langile guztiei (langile berriei ere), baita hizkuntza irizpideen berri ere, eta Bikain ziurtagiria prestatzeko lanetan ere behin eta berriz jakinarazi genien udalean nola kudeatu behar zituzten hizkuntzak eguneroko jardunean, baina badirudi kontu hauek gogoraraztea komeni dela, edo beste modu zuzenago batean azaltzea.
- Langileen Euskara taldearen lana azpimagarria dela iruditzen zaigu, euskararen inguruko hainbat ekimen udalean bideratzen laguntzen dutelako, eta taldeko kideek euren sailetako langileak motibatuzko egiten duten lana garrantzitsua delako. Talde honi jarraipena ematea proposatzen dugu.
- Plangintzaldi berrira begirako erronkak eta lan ildoak aurrera eramateko ezinbesteko balioak izango dira bai elkarlana, bai sailen arteko zeharlerrotasunez lantzea gaiak, zein antolaketa eta eragin guneak ondo zehaztea.
- Plan honen estrategia antolatuzko, *desing thinking* teoriak ekintza planen estrategia definitzeko oinarrian jartzen diren 5 elementuetan oinarritu gara:

 Baliabideak	 Pertsonak	 Informazio fluxuak	 Erabaki guneak	 Neurriak
Euskara saila, itzulpen zerbitzua barne.	Udal langileak: esperientziadunak eta langile berriak.	Euskara saila eta udaleko gainerako sailen arteko komunikazioa.	Langileen Euskararen taldea planaren jarraipenerako guneetako bat izango da, gainerakoan artean motibazioan eragingo duena.	Erabilera plana diseinatzean jasotako hobekuntzak ezartzea.
Euskaraz sortzeko laguntza-formazio-ahokularitza.	Udal ordezkariak. Elgoibarko herritarrak.	Udal ordezkari eta langileen arteko harremana.	Udaleko ohiko organoek egingo diote jarraipena planari (herritartasun batzordea...).	Kudeaketa arloan jarraipenerako sistema zehaztea.
		Langileak eta herritarren arteko komunikazioa.		KEMEN eredura egokitzea.

8. KEMEN MARKO BERRIRA EGOKITZEKO EGITEKOAK

KEMEN

HPSk, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak, Plangintzaldi berrira begira proposatu duen markoa da **KEMEN** (Kudeaketa Erabilera Markoa Erabilera Normalizatzeko). Kudeaketa Erabilera eragiteko palanka nagusi gisa aurkezten du HPSk marko berri hau.

Elgoibarko Udalak 2022ko abenduan erabilera planaren ebaluazioa egin eta plan berrirako proposamena prestatu badu ere, 2023an **KEMEN** eredu berriaren araberako lanketa egingo du.

ERABILERA PLANAREN EGITURA

Plan estrategikoa



Horretarako, ondorengo pausoak jarraituko dira:

- Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak eguneratzea eta egokitzea.
- Plan estrategikoa diseinatzea, HPSri txostena eskatu eta onarpena jasotzea.
- Kudeaketa plana prestatzea, gutxienez, 2, plangintzaldi bakoitzean.
- Aginte paneleko nahitaezko 13 adierazleen jarraipena egin aplikazio informatikoan.

Txosten honetan egindako lanak ebaluaziorako balioko badu ere **KEMEN**era egokitu beharko dira datuak eta emaitzak behin betiko bertsioa jasotzen dugunean HPStik.

9. 2023-2027rako ERRONKAK ETA ILDO NAGUSIAK

ERRONKAK	LAN ILDOAK
<p>Kudeaketa HIZKUNTZA KUDEAKETA ETA JARRAIPIEN SISTEMA ZEHAZTEA ELGOIBARKO UDALEAN</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza irizpideak barneratzeko modua eta bideak ezarriz. Udaleko sail ezberdinetako teknikarien laguntzaz euskara arloko kudeaketa planari jarraipen sistematikoa eginez. Langile berrien harrera egiterakoan, euskara zerbitzuaren berri eman eta hizkuntza irizpideak azalduz.
<p>Erabilera kanpora UDALAK KALITATEZKO ZERBITZUA BERMATZEA (EUSKARAZ LAN EGITEA KALITATEZ LAN EGITEA DA)</p>	<ul style="list-style-type: none"> Udalak herritarrekiko harremanetan euskarazko zerbitzuaren eskaintza eta erabilera modu egokian kudeatuz. Kanpo harremanak: sektore publikoekiko eta erakundeekiko harremana euskaraz bultzatuz.
<p>Erabilera barrura EUSKARAZ gero eta gehiago EGINGO DUEN UDALA IZATEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen ahozko erabilera handituz udal barruko harremanetan. Udal ordezkarien jardunetan euskaraz eginez. Herritar eta erabiltzaileak aktibatuz Udalarekin harremanak euskaraz izateko.
<p>Motibazioa+ezagutza HIZKUNTZA OHITURAK LANTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> Motibazio eta sentsibilizazio ekimenak eginez udal langile eta kargu publikoei zuzenduta. Hizkuntza ohiturei buruzko informazioa jasota.

10. 2023-2027rako HELBURU ETA NEURRI PROPOSAMENAK

Helburu nagusi bat du plangintza berri honek; “Udalean euskararen erabilera bermatzea, bai lan hizkuntza bai zerbitzu hizkuntza modura, herritarren hizkuntz eskubideei modu egokian erantzun ahal izateko”.

Helburu zehatzak ondorengoak dira:

- Elgoibarko Udalaren esparru guztietan euskara zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzen jarraitzea, eta hobetu beharreko arloak identifikatu eta horietan eragitea. Hau da, herritarrek Elgoibarko Udalarekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, hizkuntza ofizial bat zein bestea erabiltzeko eskubidea bermatzen jarraitzea, eta euskara erabil dezaten sustatzea.
- EAEko beste administrazioekiko harreman hizkuntza euskara izatea sustatzea, ahoz zein idatziz, bereziki, Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin.
- Euskara Elgoibarko Udalaren lan hizkuntza izatea nagusiki, ahoz zein idatziz, eta horretarako, prestakuntza eta baliabide egokiak eskaintzea langileei.

Esparruz esparru, 2023-2027 eperako neurri proposamenak:

ZERBITZU HIZKUNTZA

<i>Erakundearen irudia</i>	Errotulazioa.	Irizpideak zaintzen direla bermatzea: <ul style="list-style-type: none"> o Euskara hutsezko irudiaren aldeko urratsak emanez, gutxieneko ulermena bermatuta dagoenean.
	Argitalpenak, publikazioak, albisteak eta jendaurreko ekitaldiak.	Euskararen presentzia zaintzea eta lehentasuna jartzea Udalak zerbitzua ematen duen arloetan: <ul style="list-style-type: none"> o Haur eta gazteak eta haien familiekiko harremanetan. o Udalak antolatutako edo diruz lagundutako hitzaldi/ikastaroetan hizkuntza irizpideak betetzen direla bermatuz.
	Ingurune Digitala.	<ul style="list-style-type: none"> o Udal aplikazioak euskaraz erabiltzeko lehenestea. o Udalak erabiltzen dituen teknologia berrietan, dagokionak hizkuntza irizpideen jarraipena egitea.

<i>Herritarrekiko harremanak</i>	Euskara erabiltzeko proaktibotasuna sustatzea langileen artean: <ul style="list-style-type: none"> o Formazioa eskainiz udal langileei. o Herritarrak motibatuz kanpaina edo ekimen baten bidez. o Ikastaroetan eraginez: garbi adieraziz ikastaroaren hizkuntza zein den, gaztelania nagusitu ez dadin ele bietan eskainiz gero.
	Idatzizko harremanak: <ul style="list-style-type: none"> o Udalean erabiltzen diren dokumentuak herritarrek euskaraz erabil ditzaten sustapen lana eginez (<i>obra baimenak, dirulaguntza eskaerak, aretoak erabiltzeko eskaerak...</i>). o Euskararekin zailtasunak izan ditzaketen langileekin, edo dagokion sailarekin, egoera hobetzeko neurriak hartuz.

LAN HIZKUNTZA

<i>Barne komunikazioa eta lan tresnak</i>	Idatzizko barne komunikazioa	Indarrean dauden hizkuntza irizpideak betetzea: <ul style="list-style-type: none"> o Irizpideak eguneratuz. o Ezagutzera emanez langileei eta udal ordezkariari.
	Ahozko barne komunikazioa	Ahozkoan eragitea: <ul style="list-style-type: none"> o Sailez saileko ahozko erabileraren neurrak eginez. o EUSLE abian jarrita beharra dagoen sailetan, adibidez, Udaltzaingoan. o Ahalduzko/motibatuzeko saioak eskainiz langileei.
	Baliabide informatikoak	Aplikazio informatikoak euskaraz: <ul style="list-style-type: none"> o Gaztelaniaz daudenak identifikatuz eta euskarazko bertsioa eskatuz hornitzaileari. o Euskaraz dauden aplikazioak erabiltzeko sustapen lana eginez.

<i>Pertsonen kudeaketa</i>	Laneko prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> ○ Udalak langileentzat antolatutako ikastaroak % 100ean euskaraz izatea. ○ Kanpo ikastaroak, aukera dagoenean behintzat, euskaraz jasotzea langile euskaldunek. Pertsonal sailetik jarraipena egitea. ○ Ikastaroen berri zabaltzea.
<i>Kanpo harremanak</i>	Administrazioa	Administrazio publikoarekin euskara hutsean jardutea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Munigexeko kudeatzaileak formazio bidez hizkuntza irizpideak transmitituz. ○ Ahulguneak edo zailtasunak identifikatzea eta neurriak zehaztea.
	Enpresak	Euskararen erabilera sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Elgoibarko enpresa eta erakundeekin euskararen erabilera sustatuz. (Sareko erabiliz hornitzaileak identifikatuz) ○ Udalean erabilienak diren dokumentuak identifikatuz eta herritarrak euskarazkoak erabiltzera animatuz.

HIZKUNTZA KUDEAKETA

<i>Sortze hizkuntza</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▢ Euskaraz sortzeko formazioa eskaintzea udalean. ▢ Udal tramiteetan euskara hutsez aritzeko behar diren egokitzapenak egitea. ▢ Munigexeko prestakuntzetan, dokumentuen hizkuntza nola jaso behar den azaltzea.
<i>Hizkuntza irizpideak</i>	Hizkuntza irizpideen zabalkundea egitea langileen artean: <ul style="list-style-type: none"> ▢ Langile berrientzako harrera protokoloan txertatuz eta hizkuntza irizpideen berri emanez. ▢ Irizpideak eguneratuz eta berriak onartuz. ▢ Irizpideen berri emateko komunikazio eraginkorra landuz (hileroko buletina, lehiaketa, bideoa...) ▢ Irizpideen zabalkundeetan pertsona esanguratsuak inplikatur (pertsonal arduraduna, alkatea) ▢ KEMEN Kudeaketa Marko berrira egokituz dauden irizpideak.
<i>Hizkuntza eskakizunak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▢ Udalean sortzen diren lanpostuetan hizkuntza eskakizunak eta derrigortasunak ezartzea. ▢ Betetze mailaren jarraipena egitea. ▢ Bete gabe dutenei laguntza eta aholkularitza eskaintzea euskara ikasteko edo trebatzeko.
<i>Ordezkarri politikoaren hizkuntza gaitasuna</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▢ Legealdi berriko udal ordezkariei planaren eta hizkuntza irizpideen berri ematea, eta euskara gaitasuna izatearen garrantziaz kontzientziatzea.

<p><i>Langileen partaidetza eta haien balorazioa planarekiko</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▭ Euskara taldea indartzea eta balioa ematea egiten duen lanari. ▭ Egiten diren ekimenetan langileen gogobetetzea jasotzea modu sistematikoan.
<p><i>Kontratazioak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▭ Zerbitzuen kontratazioetan txertatzea hizkuntza beharrak eta euskararen erabilera. Kontratazio arduradunarekin edo/eta dagokion saileko arduradunarekin eginez jarraipena.
<p><i>Bestelakoak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▭ Euskara Zerbitzuaren berri ematea: funtzioak, lan banaketa.. ▭ Komunikazioan hobetu beharra oro har. ▭ Gizarteko euskara ekimenak udalean sustatzea (Korrika, Euskaraldia, Euskararen Eguna) ▭ 179/2019 Dekretuari lotutakoak bermatzea: dirulaguntzetan, hitzarmenetan, Udalaren lagapenetan, espazio publikoetan... euskararen erabilera bermatzeko neurriak zehaztea.

II. NORMALIZAZIO EKINTZAK

Hona hemen Euskara Zerbitzuak VII. Plangintzaldirako aurreikusten dituen normalizazio ekintza nagusiak:

Hizkuntza prestakuntzari dagozkion normalizazio ekintzak

- Hizkuntza prestakuntza orokorra eskaintzea, langileek euskara ikastaroetara joateko dituzten baldintza eta arautegiarekin bat etorriz.
- Laneko prestakuntza ikastaroetan euskarazko eskaintza gehitzea.
- Interneteko lan tresnak langileen eskura jartzea: itzulpenak egiteko aplikazioak, hiztegiak...
- Langileei hizkuntza-aholkularitza eskaini eta idazkien zuzenketak egitea uneoro.
- Formazio ekintza laburrak eskaintzea erabilera praktikora bideratuta.

Baliabide materialei dagozkien normalizazio ekintzak

- Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioa langileen eskura jartzea.
- Baliabide informatikoen eskaintzen dituzten aukeren berri ematea langileei (zuzentzaile ortografikoak, hiztegiak, banku terminologikoak, itzulpen memoriak...).
- Idazki normalizatuak sortzea hizkuntza ofizialen erabilera errazteko.

Euskararen erabilerari dagozkion normalizazio ekintzak

VI. Plangintzaldian zehar euskararen erabileran eragin eta udaleko langileen artean euskararen inguruan giroa sortzeko Langileen Euskara taldea sortu zen. VII. Plangintzaldian talde horri funtzioak eta ardurak ematea dugu helburu, langileek proaktibotasunez jokatzeko ekimenak bultzatuz. Formazio beharrak jasotzea ere aurreikusten da, baita erabilera planari eta hizkuntz irizpideei buruzko komunikazioa egoki egitea, eta azkenik, udalean euskara sustatzeko ekimen orokorrak sustatzea (Euskaraldia, Euskararen Eguna, Korrika) eta euskararen aldeko giroa sortzea.

I2. AZPIEGITURA

Plan honekiko arduradun bakoitzaren funtzioak eta eginbeharrak jaso nahi dira atal honetan. Orain arteko baliabideak kudeatu eta planaren dinamika ziurtatzeko hurrengo azpiegitura eta funtzioak proposatzen dira:

Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria

Ondorengo zerrendan jasotzen diren egitekoak aurreikusten dira:

- Hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten kudeaketaren eta betetze mailaren jarraipena.
- Hizkuntza prestakuntzarako aholkularitza eta saioen koordinazioa eta jarraipena.
- Erabilera Planaren kudeaketa eta jarraipena, horretarako propio sortutako aplikazio bidez.
- Hizkuntza irizpideen jarraipena, horretarako izendatutako erantzuleekin batera.
- Langileen Euskara taldearen kudeaketa.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinazio lana.
- Euskarazko testuen kalitatea bermatzeko elkarlanean jardutea itzultzailearekin.

Itzultzailea

Itzultzaileak egin beharrekoen artean hauexek aurreikusten dira:

- Itzulpenen ardura eta ereduaren egokitzapenak.
- Hizkuntza aholkularitza eta zuzenketa zerbitzua.
- Itzulpenen eta zuzenketen kudeaketa, euskararen erabilera zuzena bermatzeko.
- Itzulpen tresna eta itzultzaile neuronalen inguruko zabalkundea eta formazioa langileei.
- Euskarazko testuen kalitatea bermatzea, testuak zuzen, ulergarri eta egoki egon daitezen.
- Hizkuntza irizpideen jarraipena normalizazio teknikariarekin elkarlanean.

Langileen Euskara taldea

Partaideak: Udaleko sail ezberdinetako langileak eta Euskara saileko ordezkari bat

Betebeharrak:

- Erabilera planean jasotako helburu batzuek bideratzea.
- Udal langileen artean euskararen aldeko giroa eragitea.
- Gizarte ekimenean sortutako euskara ekintzak udalera ekartzea.

Herritartasun batzordea

Partaideak:

- Herritartasun arloko zinegotziak eta teknikari arduraduna.

Betebeharrak:

- Planaren hasiera proposamena aztertzea eta ekarpenak egitea.
- Helburuen betetze maila baloratzea eta egokitzapen neurriak onartzea.
- Tokiko Gobernu Batzarrera eta Osoko Bilkurara bideratu beharreko proposamenak aztertzea, eta hala badagokio, oniritzia ematea.

Tokiko Gobernu Batzarra

Partaideak:

- Gobernu Batzarra osatzen duten ordezkari politikoak eta Udaleko idazkaria.

Betebeharrak:

- Euskara sailak, Herritartasun Batzordearen bidez, egindako proposamenak baloratzea eta erabakiak hartzea.
- Hizkuntza irizpideak progresiboki martxan jartzeko erabakiak hartzea.

**Euskara Sailak kudeatuko du erabilera plana,
baina aurrera eramateko ardura denona izango da,
Udal langile eta ordezkari politiko guztiek izango dute
plana norbere arloan bideratzeko ardura.**